

24. TXALAPARTA FESTA HERNANI, 2010, MAIATZAK 20, 21, 22

MAIATZAK 20, osteguna, arratsaldeko 7,30etan. Biteri Kultur Etxean
Juan Mari Beltranek TXALAPARTA izenburu duen liburu-CD-DVD proiektuaren aurkezpena egingo du. Ekitaldia Juan Mari Beltranen txalapartari laukotearen* joaldi batek eta argitalpen berriko DVDaren proiektzioak osatuko dute.

**Txalapartari laukotean Juan Mari Beltranez gain Aitor Beltran, Ander Barrenetxea eta Ixiar Jauregi aritzen dira.*

MAIATZAK 21, ostirala, arratsaldeko 7,30etan. Biteri Kultur Etxean
Txalaparta Emanaldi berezia **Harresian Zulo** Gasteizko txalaparta taldearen eskutik.
Euskal Herriko eta Afrikako herri erritmoak, dantzak, musikak...

Gaueko 12tan, ATXUR pub-tabernan
Txalaparta party aparta **DJ BARRU** eta txalapartariekin

MAIATZAK 22, larunbata. Ezkiaga pasealekuan (Tilos)
Arratsaldeko 6etatik aurrera

TXALAPARTA FESTA

TXALAPARTA ERROMERIA

Txalaparta saio libreak

Sagardo banaketa

HERNANI Musika Eskolako Alboka, Dultzaina,
Trikitixa eta Txistu taldeak kale bueltan

Arratseko 9tan **HERRI AFARIA**

20 €. Erreserbak Hernani Musika Eskolan. Tf: 943 337050 / jm-beltran@hernani.net

Afal ondoren

TXALAPARTA JAIALDI NAGUSIA

Bertsolariak: Hernaniko Bertso Eskola.

Zuaznabartarrak eta Goikoetxeatarrak, txalapartariak

Araba: **Txalamako Gasteizko txalapartariak**

Nafarroa: **FLAKUTT txalaparta taldea**

Bizkaia-Gipuzkoa: **BIZPALAU taldea**

Gipuzkoa eta Bizkaiaren arteko elkarlana

Sergio Lamuedra, Sendoa Gómez, Jaione eta Eneko Abad txalapartariak

HERNANI Musika Eskolako **Ttakun ttan ttakun** txalaparta taldea

Txalaparta Festa gunean "txalaparta merkatu txikia" irekia egongo da (grabaketak, liburuak, bideo eta DVDak, materiala,...)

Oharra: eguraldi txarra egingo balu, larunbateko ekintza guztiak Atsegindegi plaza estalian egingo lirateke

Antolatzaileak:

HERNANI Musika Eskola Publikoa

TTAKUN TTAN TTAKUN TALDEA

Laguntzaileak:

ORONA, Hernaniko Sagardotegiak,

irudiART.com soluciones audiovisuales, Herri Musikaren Txokoa

Babeslea:

Hernaniko Udala

24. txalaparta festa

Hernani, 2010



maiatzaren 20, 21, 22

24. TXALAPARTA FESTA HERNANI, 2010eko maiatzaren 20, 21 eta 22

Hernani Musika Eskola Publikoarekin batera eta honen zati bat delarik, 1985-1986 ikasurtean sortutako Hernaniko Txalaparta Eskolak berehala ekin zion musika eta soinu-tresna honek behar zuen ezagupen, erakustearen eta zabalkundearen aldeko Eskola barruko nahiz kanpoko lan eta ekintzei. Horrela, klasetako ikasketa egitaraua osatze lanez gain, bestelako jardunetan murgildu zen.

Horrela, 1986-1987 Eskolaren bigarren ikasurtean, beste ekintzen artean Eskolako irakasle eta ikasleek antolaturik eta Hernaniko Udalaren babesarekin, 1987ko apirilean **TXALAPARTA FESTA**ren ibilbidea hasi zen.

Geroztik, urtez urte eta hutsunerik gabe, Txalaparta Festetan parte hartu dutenek edizioz edizio txalaparta inguruko arlo eta mota ezberdinez osatutako ekarpen aberatsa egin dute.

Aurreko hogeita hiru urteetan izan den bezala, aurtengo maiatzaren 20, 21 eta 22an, Hernanin **24. Txalaparta Festa** ospatuko da, beti bezala HERNANI Musika Eskola Publikoak eta bertako Ttakun Ttan Ttakun txalaparta taldeak antolaturik.

Edizio honetan berrikuntzak aurkezten badira ere, aurreko edizioen ildo beretik jarraitzen du, hau da, txalapartaren arlo ezberdinak aztertzen eta aurkezten.

Lehen egunean, osteguna **maiatzaren 20an**, **Juan Mari Beltranen TXALAPARTA** izenburu duen liburu-CD-DVD proiektuaren aurkezpena. Ekitaldi honetan argitalpen honetako DVDa proiektatuko da.

Bigarren egunean, ostirala **maiatzaren 21ean**, txalaparta emanaldi berezien eguna den horretan, arratsaldeko 7:30etan **Harresian Zulo** Gasteizko txalaparta taldearen kontzertua.

Gaueko 12tan, **ATXUR** pub-tabernan: Txalaparta party aparta txalaparta eta disko emanaldia **DJ BARRU** eta txalapartarien eskutik.

Larunbata, **maiatzak 22** hirugarren eta azken egunerako honako egitarau antolatu dugu: Arratsaldeko 6etatik aurrera: **FESTA NAGUSIA**. Bertan, Hernaniko Sagardotegien laguntzarekin sagardo banaketa eskainiko dugu. HERNANI Musika Eskolako dultzainero, txistulari, albokari eta trikitilari taldeak inguruko kale eta plazetan festa giro aparta jarriko dute.

TXALAPARTA ERROMERIA, hau da, txalaparta saio libreak bertan izango ditugu, etorzen diren txalapartari guztiei elkarri eta nahasturik jotzeko aukera emanez.

9etan **HERRI AFARIA** eta ondoren Hernaniko Bertso Eskolako bertsolariek hasiera emango diote **TXALAPARTA FESTA**ren saio nagusiar.

Zuaznabar eta Goikoetxea txalapartari familietako txalapartarien saioak izango dira gaueko Txalapartaldiaren abiapuntua. Hauen ondoren **Euskal Herriko eskualde guztiak** ordezkatzeko dituzten txalaparta taldeek duten musika onena eskainiko digute.

Halako egitaraua ikusirik, txalaparta zaleok ezin dugu hutsik egin eta Hernanira agertu behar dugu txalapartaz osatutako deialdi honetara.

HERNANI Musika Eskola Publikoa
Ttakun ttan txalaparta taldea
Atzieta 4 / 20120 Hernani
Tel. 943 337050
Email: jm-beltran@hernani.net

HARRESIAN ZULO

**Maiatzak 21, ostirala
arratsaldeko 7:30etan
Biteri Kultur Etxean**

Gasteizko talde honek Euskal Herriko eta Afrikako herri erritmoen, dantzen, musiken eta beste hainbat elementuren nahasketa egiten ditu besteak beste txalaparta, perkusioak eta alboka erabiliz.



Harresian Zulo osatzen duten musikari eta dantzariak dira:

MUSIKARIAK

Paskal Dione: *Ahotsa, Djembe*

Unai Villalba: *Txalaparta, Alboka, Doum-Doum, Perkusioa*

Dani Zuazagoitia: *Txalaparta, Djembe*

Beñat Villalba: *Txalaparta, Akordeoia*

Txabo Gómez: *Kaxoi flamenkoa, Perkusioa*

Juankar: *Kongak, Darbuka, Arabiar Riqqa, Koroak*

Pedro: *Baxua*

Jose Buenaída: *Gitarrak*

DANTZARIAK

Txonan de Luxe eta Tamara: *Euskal dantzak*

Aisha Kone: *Afrikako dantza herrikoiak*